

## **EEE ekiditzeko Glavista Auglaserako Interbentzio Plana eskatu die Elkarrekin Arabak Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari**

- **Batzarkide taldearen proposamenaren neurrien artean enpresa edota “bere funtzionamendurako beharrezkoak diren lursailak” desjabetzea dago**
- **Jabea den Inbertsio Funtsea 240 langile EEE batera eramaten ari da eta 17 milioi euroko pasiboa du diru-laguntzen bidez 4 milioi euro baino gehiago jaso ostean**

### **Gasteizen, 2023ko urriaren 24a, asteartea**

Elkarrekin Arabaren ustez, administrazio publikoak esku hartu behar du Glavista Autoglasen lan-gatazkan, enplegu-erregulazioko espedientea saihesteko eta esku hartzeko plan bat proposatu du. Bere neurrien artean enpresaren desjabetzea eta haren funtzionamendurako "beharrezkoak diren lursailak" aurreikusten dituen.

Glavista Autoglas enpresa arabarrak bere burua EEE batera bultzatuta ikusten du, 240 pertsoneri eragingo diona. Jabea den inbertsio funtse Partnerrek 4 milioi euro gorako diru-laguntza publikoak jaso ditu. Elkarrekin Araba batzarkide taldetik enpresa honen gainean "krisiaren itzala" dagoela eta "iraganeko etorkizunaren oihartzunak" entzuten direla uste du.

Hori dela era, Podemos, Ezker Anitza-IU, Berdeak Equo eta Alianza Verde alderdien arteko koalizioak Glavista Autoglaserako Interbentzio Plana eskatu die Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari. Bere ekimenaren bidez, lehenik eta behin, erakunde horien bitartekaritza eskatzen dute, Amine enpresaren Glavista eskuratzeko bideragarritasun-proiektua aztertzeko, Merkataritza arloko Epaitegiak, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Laudioko Udalak onartu zuten bezala.

Bitartekaritza horrek porrot egiten badu, batzarkide taldeak Glavistarako Salbamendu Plan Publikoa garatzea eskatzen du, enpresa eta bere funtzionamendurako beharrezkoak diren lursailak desjabetzea, akziodunen kontrola eta enpleguaren erabateki kontserbazioa aurreikusiko lituzkeena.

Koaliziotik diote “Industrian Aiaraldeko, Arabako eta Euskadiko garrantzia bermatzea erakunde publikoen bultzada irmoarekin” lortu daitekeela soilik.



Gainera, José Damián García-Moreno prokuradoreak, ekimen hau defendatuko duena, Airaldeko Industrializazio Plana eskatzen dutela azaldu du, ekonomiaren agitura indartzeko, egungoa eraldatzeko eta enplegua sortzeko. 25 milioi euroko diru-laguntza eskaintza ere planteatu dute, eta horietatik %50a dirulaguntza publikoa izango da, %25a kreditu itzulgarria eta gainerako %25a partaidetza-maileguak. Azkenik, inguruko udalen laguntza eskatu dute neurri hori aplikatzeko.

"Neurri eta zifra horiek oso gogorak dira hasieran, baina foru-erakundea eta Eusko Jaurjaritza horiek abian jartzeko gai dira. Hori egiteko borondatearen mende dago. Gainera, uste dugu inbertsio hori eta ahalegin horiek administrazioari itzuliko zaizkiola, eskualdeko enplegu, gizarte-ongizate eta aberastasun gisa. Arabako gizartearekin eta Glavistako langileekindugun konpromisoa berretsi nahi dugu ", ondorioztatu du García-Moreno prokuradoreak.